



5.1 Kanal nagusia: gure webgunea

Gure webgunea izango da komunikazio-, salmenta- eta arreta-kanal nagusia. Bertan bezeroek produktuaren inguruko informazio eguneratua, prezioak eta erosketa segurua egiteko aukera izango dute.

Era berean, webguneak gure bezero segmentuaren ohituretara egokitzen den erosketa digital azkar eta autonomoa eskaintzen du.

5.2 Komunikazioa eta arreta: posta eta formularioa

Bezeroek posta elektronikoaren edo webgunean integratutako formularioaren bidez jarri ahal izango dute gurekin harremanetan.

Bi kanal horiek erabiliko ditugu informazioa emateko, zalantzak argitzeko eta salmenta osteko arreta eskaintzeko.

Honek aukera ematen du gure bezeroek modu erosoan, erantzunak jasotzeko.

5.3 Plataforma elkartuak: TikTok Shop, Amazon eta Shein

Gainera, gure produktua TikTok Shop, Amazon eta Shein plataformetan ere egongo da salgai. Nerabeak batez ere hor erosten dutelako eta gizarte honetan modu errazena delako ikusgarritasuna emateko. Helburua da ikusgarritasuna handitzea, jende berria erakartzea eta gure bezero segmentuaren nahiei erantzutea, izan ere, gure publikoak erosketa digital arina eta plataforma ezagunetan erosiko du.

Plataforma horiek gure salmenta-estrategia osatuko dute, baina webgunea izango da informazio osoa, arreta eta erosketa zuzena batzen dituen gune autonomoa.

Kanal motak eta haien helburuak

- **Komunikazio-kanalak:** webgunea, posta elektronikoa, formularioa.
- Helburua: informazioa ematea eta zalantzak argitzea.
- **Salmenta-kanalak:** webgunea, TikTok Shop, Amazon, Shein.
- Helburua: produktuaren salmenta, eskuragarritasuna eta ikusgarritasuna handitzea.
- **Arreta-kanalak:** posta elektronikoa eta web-formularioa.
- Helburua: bezeroaren beharrak entzun eta konponbideak ematea.